

## Bertsolaritzak eta zientziak bat egingo dute Lazkaon

**Euskal Herriko Kultura Zientifikoko Katedrak eta Lemniskata Goierriko Zientzia Sare Herrikoiak bertsolaritza eta zientzia uztartzen dituen ekimena antolatu dute apirilaren 19rako.**

**Arturo Elosegi, Itxaro Perez eta Josu Lopez-Gazpio ikertzaileek jorratutako gaiei bertsoak jarriko dizkiete Amaia Agirrek eta Nerea Ibarzabalek.**

**Lazkao, 2024ko apirilak 15.** Beste behin ere zientzia eta bertsolaritza batuko dira "Jakinduriek mundue erreko dau" lelopean. Izan ere, gai zientifikoak eta bertsoak batzen dituen **Bertsozientzia ekimena bueltan da** eta, oraingoan, **Lazkaon** egingo da.

Kike Amonarrizek gidatuko du [Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta Lemniskata Goierriko Zientzia Sare Herrikoiak antolatutako "**Bertsozientzia: Jakinduriek mundue erreko dau**" saioa.

Bertsolaritza eta zientziaren dibulgazioa batzen dituen ekimen honetan **Amaia Agirre eta Nerea Ibarzabal bertsolariak** hiru zientzialarik, haien hitzaldi laburren bitartez, landutako gaien inguruan abestuko dute. Horrela, bertsogai bihurtuko da **Arturo Elosegi** UPV/EHUko Ekologia irakaslearen "**Euskal erri(o)aren bilakaera. Iraganaren arrastoak etorkizuneko erronkak**" **hitzaldia** Alegia, Euskal Herriko ibaiak nola berreskuratu diren abiapuntu hartuta bertsotan arituko dira Agirre eta Ibarzabal.

Gauza bera gertatuko da **Itxaro Perez** UPV/EHUko Erizaintza Graduko irakaslearen hitzaldiarekin. Perez "**Zahartzaroan kirola ere ez dago soberan**" berbaldian bizi aktiboari eusteko garrantzia hitz egingo du. Azkenik, **Josu Lopez-Gazpio** zientzia-dibulgatzaileak jaioberrien eraketa-prozesuarekin lotutako teoria batean sakonduko du. Alegia, "**Zikoinaren Teoria: ezkutatu diguten egia**" izango da bere mintzagaia. Bertsozientziaren saio **berria apirilaren 19an izango da, 19:00etan, Lazkaoko Areria Aretoan.** Sarrera librea izango da edukiera bete arte.

## Bertsozientzia: jakinduriek mundue erreko dau

**Eguna:** Apirilak 19, ostirala

**Ordua:** 19:00

**Lekua:** Areria aretoa, Lazkao

**Hizlariak:**

**Arturo Elosegi:** Euskal Herriko Unibertsitateko Ekologia irakaslea da. Giza-jarduerek ekosistemetan duten eragina aztertzen du, bereziki horien biodibertsitate eta funtzionamenduari erreparatuz. Erakunde publikoekin elkarlanean, ibaien egoera ekologikoa hobetzeko oinarritzko ikerketaren aplikazioak bilatzen ditu.

**Itxaro Perez:** Heste lodiko minbiziaren garapenean proteina batzuek zuten aktibitatearen inguruko ikerketa egin zuen tesian. Gaur egun UPV/EHUko Donostia kampusean Erizaintza graduoko irakaslea eta bizitzan zehar ariketa fisikoaren onurak aztertzen duen [Ageing On ikerketa taldeko](#) kidea da.

**Josu Lopez Gazpio:** Kimikan lizentziatua eta doktorea, gaur egun irakaslea eta zientziadibulgatzalea da. Besteak beste, [Udako Euskal Unibertsitateko irakasleen prestakuntzarako masterreko](#) irakaslea da eta master bereko Natur Zientziak eta Matematika espezialitatea koordinatzen du.

## El bertsolarismo y la ciencia se unen en Lazkao

**La Cátedra de Cultura Científica del País Vasco y Lemniskata, Goierriko Zientzia Sare Herrikoia, han organizado para el 19 de abril una nueva edición de Bertsozientzia que aúna bertsolarismo y ciencia.**

**Amaia Agirre y Nerea Ibarzabal cantarán sobre los temas desarrollados en sus breves charlas por los investigadores Arturo Elosegi, Itxaro Pérez y Josu López-Gazpio.**

**Lazkao, a 15 de abril de 2024.** Una vez más la ciencia y el bertsolarismo se unen bajo el lema "Jakinduriek mundua erre dau". Y es que la iniciativa **Bertsozientzia**, que aúna la divulgación científica y los bertsos, vuelve con una nueva edición que tendrá lugar **en Lazkao**.

Kike Amonarriz volverá a estar al frente de "**Bertsozientzia: Jakinduriek mundua erre du**" organizado por [la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) y la Lemniskata, Goierriko Zientzia Sare Herrikoia.

En esta ocasión las bertsolaris **Amaia Agirre y Nerea Ibarzabal** cantarán sobre los temas tratados en sus breves charlas por tres investigadores. Lo harán, por ejemplo, con **la charla "Euskal erri(o)aren bilakaera. Iraganaren arrastoak etorkizuneko erronkak"** del profesor de Ecología de la UPV/EHU **Arturo Elosegi**. La recuperación medioambiental de los ríos se convertirá, por lo tanto, en uno de los asuntos sobre los que cantar.

Lo mismo sucederá con la charla de **Itxaro Pérez**, profesora del Grado de Enfermería de la UPV/EHU. Pérez hablará sobre la importancia de mantener la vida activa en su charla "**Zahartzaroan kirola ere ez dago soberan**". Por último, el divulgador científico **Josu López Gazpio** profundizará en una teoría relacionada con el proceso de formación de los recién nacidos. Es decir, López Gazpio hablará de llamada Teoría de la Cigüela en la charla "**Zikoinaren Teoria: ezkutatu diguten egia**".

La nueva sesión de Bertsozientzia se celebrará **el 19 de abril, a las 19:00 horas, en la Sala Areria de Lazkao**. La entrada será libre hasta completar aforo.

## Bertsozientzia: jakinduriek mundue erreko dau

**Día:** 19 de abril, viernes.

**Hora:** 19:00

**Lugar:** Sala Areria.

### Ponentes

**Arturo Elosegi:** Profesor de Ecología en la Universidad del País Vasco, analiza el efecto de la actividad humana en los ecosistemas, especialmente centrándose el efecto que tienen en la biodiversidad y su funcionamiento. Trabajando de manera conjunta con las entidades públicas, busca la aplicación de las investigaciones para mejorar la ecología de los ríos.

**Itxaro Perez:** En su tesis doctoral investigó en torno a la actividad de ciertas proteínas en la evolución del cáncer del intestino grueso. Actualmente es profesora en el Grado de Enfermería del campus de Donostia de la UPV/EHU y miembro del [grupo de investigación Ageing on](#) que trabaja analizando los beneficios de la actividad física en el día a día.

**Josu Lopez Gazpio:** Licenciado y doctor en Química, a día de hoy es divulgador científico y profesor en el máster de preparación de profesorado de la UEU, además de coordinador del máster de Ciencias Naturales y Matemáticas.